

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko azaroren 21a. IX. urtea. 2.437. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Sortu alderdia eratzeko lehen batzarrak egingo dituzte larunbatean

«Bere burua ezkertiar eta independentista sentitzen duten guztiak» gonbidatu ditu ezker abertzaleak bilkuretara; Tolosaldean sei herritan egingo dituzte batzarrak

Lehen batzarraren ondotik, beste hiru etorriko dira, I. Kongresua iritsi bitarte; larunbatean indar politiko berriaren perfil politiko-ideologikoa zehaztuko dute 03



Tolosako Zerkausian aurkeztu zute, herenegun iluntzean, Tolosako Sortu. A. IMAZ

Tolosako larunbat goizeko giroko irudia, ederreana

Bihar da Tolosa Gasak eta Tolargik egiten duten egutegia hartzeko azken eguna 04



Aukeratutako argazkien egileak, udaletxeko batzar aretoan. I. URKIZU

Xabier Mitxelena

Ibarrako osasun zentroko medikua

«Prebentzioa landuta, koloneko minbiziko heriotza tasa asko jaisten da»

Hitzaldiak eskainiko ditu Ibaraldeko herrietan 07

Gasaren azpiegitura berria, Bidegoianen

Goiazko hilerriaren ondoan jarri dute edukiontzi berria; herriguneko biltegiak husten ari dira orain, kendu ahal izateko 05


Sartu gure webguneetan

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info
villabona-aiztondo.hitza.info
alegialdea.hitza.info
tolosa.hitza.info
anoetaldea.hitza.info
ibarraldea.hitza.info

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
@hitzatolosaldea



hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"



→ **Laburrak**

Amarotzen lapurretak egin dituzte, autoetan

GIZARTEA Tolosako Amarotz auzoan lapurretak egin zituzten herenegun, arratsalde eta gau aldean. Bi autotan eta furgoneta batean sartu ziren lapurrak, Ertzaintzak jakinarazi duenez. Autoen jabeek herenegungo 20:00ak eta atzoko 06:00ak artean jarri zituzten salaketak. Kristala apurtuta edota atea behartuta sartu ziren lapurrak, eta askotariko materiala lapurtu dute ibilgailuetatik.

‘Nola iritsi naiz Ski Bum bat izatera?’ hitzaldia, gaur

GIZARTEA Iraitz Ezkergain ibartarrak *Nola iritsi naiz Ski Bum bat izatera?* izeneko hitzaldia eskainiko du, gaur, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan, 20:00etan. Besteak beste, daraman bizimodu nomada eta, eta bukatzeaz dituden goi mendi gidari ikasketen esperientzia kontatuko dizkie bertaratuei.

Inauterietako jai batzordea, bihar

GIZARTEA 2013ko inauterietako prestatzeko jai batzordearen lehen bilera egingo dute, bihar, 19:30ean, Antonio Maria Labaien kultur etxean. Besteak beste, karroza eta konpartsen gaiaz ariko dira: lehiaketaren oinarriak, ferialekuaren erabilera eta pabiloia eta ibilbidea.

↓ **Iragarki laburrak**

SALGAI

Etxebizitza. Alegian etxebizitza salgai garajea barne. 8 urte eta oso egoera onean. Sukaldea eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela eta egongela ditu. Guztia kanporantz begira eta oso eguzkitsua da. Igogailua du zuzenean garajera jaisteko aukerarekin (prezioan bi plazatak garajea barne dago). Interesatu

EHEk elkarretaratzea deitu du larunbaterako

EUSKARA Euskal Herrian Euskarazek, Euskararen Legea sortu zela 30 urte bete direlako, mobilizazio eguna antolatu du larunbat honetarako, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Tolosan ere elkarretaratzea izango da, *Euskaraz bizi gaitzezen, aska ditzagun kateak!* lelopean, 12:00etan, Trianguloa plazan.

Oargi mendi elkarteak Zaraitzuko haranera

MENDIA Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du, datorren azaroaren 30etik abenduaren 2ra, Zaraitzuko haranera. Orhi (2.017m) mendira igoko dira larunbatean, eta Abodira (1.533m), berriz, igandean. Izena emateko azken eguna, datorren astelehena, azaroak 26 izango da, 688 69 86 42 telefonoan edo *info@oargi.org* helbidean. Behin izena eman-dakoan, 20 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutzako honako kontuan: 3035 0028 11 0281141038.

Arantzazuko elkarketara joateko autobusak

ERLIJIOA Larunbatean, Arantzazuko Gandiaga Topagunean elkarketa antolatu du Eutsi Berrituz kristau taldeak, Vatikanoko II. Kontzilioak duela 50 urte ekarri zuen berrikuntza gogoratzeko. Izena emateko deitu 685 72 61 68 (Carmen) edo 665 74 99 76 (Joan) telefono zenbakietara 17:00etatik aurrera, azaroaren 22a baino lehen.

LANBILA

tuek 609 787 551 zenbakira deitu, edota *alegi2012@yahoo.es* helbidera idatzi.

Etzeko lanak. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



Pasa den urriaren 2an izan zen 'Herritarrekin' egitasmo lehen saioa Tolosan. LURKIZU

2013ko aurrekontuak herritarrei aurkeztuko dizkie Martin Garitanok, gaur

‘Herritarrekin’ egitasmoaren barruan, bigarren eztorriko dira foru aldundiko ordezkariak Tolosara

Itzea Urkizu

Aurrekontuak aurkezteko, eta herritarren parte-hartzea oinarrian dutela, bigarrenez Tolosan izango da, gaur, 19:00etan, Martin Garitano Ahaldu Nagusia, foru aldundiko zenbait ordezkariarekin. Aurrekontuak herritarrekin lantzeko *Herritarrekin* egitasmoa martxan jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrela, beraz, aurrekontuak osatu baino lehen herritarren iritzia jaso zuten foru aldundiko ordezkariak,

urriaren 2an, Tolosako kultur etxean. Lantaldeetako dinamika-rekin abiarazi zuten lehen saio hura, eta herritar bakoitzak aukeratu zuen eztabaidagaia: fiskaltatea eta aurrekontuak, alde batetik, eta gizarte politikak, bestetik. Horrela, beraz, lehenengo saioan herritarren iritzi nahiz proposamenak jaso eta gero, bigarren saioa izango da gaur, kultur etxean berriz ere. 2013ko aurrekontuak eginda, eta Martin Garitano diputatu nagusia buru dutela, 2012ko aurrekontuaren balantzea plazaratuko dute lehenik eta behin, eta 2013ko aurrekontu proposamena herritarrei aurkeztuko diete.

Aldundiaren ustez, «ezinbestekoa da saio hauetan herritarren parte hartzea izatea», eta beraz, herritar guztiei egin nahi die bile-

ra hauetan parte hartzeko deia. 19:00etan izango da, Antonio Maria Labaien kultur etxean.

2011n sortutako egitasmoa 2011ko foru hauteskunde ondoan, «politika egiteko modu berri» batez aritu zen Bildu, «herritarrekin elkarlanean aritzeari» garrantzia emanez.

Lehen urte hartan, Gipuzkoako aldundiak *Kontuak Garbi* egitasmoa martxan jarri zuen, eta herriz herri aurkeztu zituzten aurrekontuak. Martin Garitanok, «herriak eta gizarteak Foru Aldundia gerturatzea eskertu» egin zuela uste du, Tolosan pasa den urrian azaldu zuenez: «Urruneko irudia zegoen, baina oraindik ere aurrerapauso asko eman behar ditugu».

• tolosa@hitza.info

Antton Izagirre tolosarra, Kutzako administrazio kontseiluko hautagai

Gaur berrituko dituzte Kutzabankeko hiru kutzetako administrazio kontseiluko

Erredakzioa

Gaur berrituko dituzte Kutzabanke osatzen duten hiru kutzetako administrazio kontseilukoak, eta Antton Izagirre Tolosako alkate ohia da, Kutzako kontseiluko kidea izateko hautagaietako bat. Lehia bizia izango da, ordea, eta liskartsua. EH Bilduk dio bera

baztertzeko ahaleginetan ari direla EAJ, PP eta PSE; salatu du, bat egin dutela koalizio aber-tzaleak gehiengorik lor ez dezan. Horrek, udal ordezkarien kasuan, berdinketa ekar dezake bozetan, eta lehian jar ditzake Antton Izagirre eta Jacobo Caparros (PP), Madrilgo alkate Ana Botellaren ildoko hautagaia.

Horren harira, EH Bilduk Kutzan egiten ari diren «iruzur ikaragarria» salatu du. Izan ere, itxura guztien arabera, EH Bilduk eta EAJ-PP-PSOE koalizioak osatutako hautagaitzak parekatuta daude; bi aldeek administrazio kontseiluan zaspina ordezkari

lortzea espero da. Administrazio kontseilukoak, ordea, hamabost eserleku ditu, eta gizarte eragile-en hautagaitzan zuen jarria esperantza EH Bilduk, bere aldeko boto emango zuelakoan. Hautagaitza hori atzera bota du Kutzako hauteskunde batzordeak, ordea; izan ere, hautagaitza horretako ordeko hautagaia 72 urte dituela argudiatu du, eta hori ezarritako adin mugatik gora dagoela. EH Bilduk dio, ordea, hautagaitza baliogabetzeko motiborik ez legokeela; adin muga administrazio kontseiluko kideei ezartzen zaielana esan du, ez ordezkoiei.

• tolosa@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sortu sortuz, independentzia eta sozialismoa eraiki nahian

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan, alderdi berria eratzeko lehen batzarra larunbatean egingo dute

Asier Imaz

Ezker abertzalea alderdi berria sortzera doa. Herri Batasuna eta Batasunaren ondoren, Sortu etorriko da. Tartean, hamaika hauteskunde zerranda eta koalizio joan dira, gehienak epaitegietara. Sortu alderdi berria herritarren parte hartzearekin osatu nahi du ezker abertzaleak, eta horretarako, batzarrak egingo dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan.

Sortu prozesuko lehen batzarra azaroaren 24an, larunbatean, izango da. Hasiere batean, eskualdeetako herri nagusienetan. Ondoren, gainontzeko herrietan «beste modu bateko» batzarrak egingo dituztela azaldu dute Tolosaldeko ezker abertzaleak.

Alderdi berriaren eratze prozesua 2013ko otsailaren 23an amaituko da, I. Kongresuarekin. Sortu prozesua nazionala izango da, hau da, Euskal Herriko zazpi lurraldeetara zabalduko da alderdi berria.

Lehen eztabaida

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri nagusienetan lehen batzarra azaroaren 24an izango da. Sorturen oinarri ideologikoen inguruan hitz egingo dute bertan, eta adostasunak zein desadostasunak aurkezteko aukera egongo da, baita ekarpenak egiteko ere, ezker abertzaleatik azaldu dutenez: «Bere burua ezkertiar eta independentista sentitzen duten guz-

↓ Lehen batzarra

AZAROAK 24, LARUNBATA

- **Anoeta.** Auditorioan, 10:00etan.
- **Amasa-Villabona.** Kultur etxean, 09:00etan.
- **Ibarra.** Kultur etxean, 09:00etan.
- **Leitza.** Erleta eskolan, 10:00etan.
- **Tolosa.** Kultur etxean, 09:30etan.
- **Zizurkil.** Atxulondo kultur etxean, 10:30etan.

tiak gonbidaturik daude; Zutik Euskal Herria ebazpenaren edukiak bere egiten dituen edonor, lehenago ezker abertzaleko kide izan edo ez».

Alderdi berriaren dinamizatzaileen esanetan, lehen batzarrean eztabaidatuko dituzten gaiak, hau da, oinarri ideologikoak, sarean aurkitzen dira edonoren eskura: «Txostena nahi duenak *sortu.net* webgunean sartu behar du. Bertan, *Ponentziak* atalean, larunbateko eztabaidan aztertuko diren gaiak aurkituko ditu: Independentzia, sozialismoa, feminismoa, euskara, ekologismoa, internazionalismoa, aniztasuna eta pertsona askea eta demokrazia parte hartzailea».

'www.sortu.net' web orrian zintzilikatu dute eztabaidarako ponentzia

Larunbateko batzarra dinamikoa eta parte hartzailea izatea nahi dute dinamizatzaileek

Ezker abertzaleatik azaldu dutenez, ponentzia irakurrita ematea komeni da: «Batzarra dinamikoa eta parte hartzailea izatea nahi dugu. Horretarako, metodologia berri bat prestatu dugu larunbaterako. Hasierean, herritarrek talde txikietan banatuko dira, ondoren, guztien arteko eztabaida eta bozketa orokorra egiteko».

Txostenean jartzen duenarekin erabat ados ez dagoen herritarrek, bere ekarpenak egiteko aukera izango du. Ezker abertzaleatik azaldu dutenez, «batzarraren dinamikarekin ez hausteko, ekarpenak etxetik idatzirik ematea gomendatzen dugu».

Gomendiotik gomendiora, behin eta berriz azpimarratzen dute parte hartzearen garrantzia Sortu prozesuaren dinamizatzaileek: «Iraultza demokratikoa martxan jartzeko bitarteko gisa, herri honen askatasunerako tresna baino ez dugu izan nahi. Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa eraiki nahi duten gizon eta emakume orori, gazte zein helduei, Sortu prozesuan parte hartu dezaten eskatzen diegu. Prozesu herritarra burutu nahi dugu, eta horretarako herritarrekin batera egin nahi dugu bide».



Goierriko eta Tolosaldeko Sorturen dinamizatzaileak Ordizian, larunbateko batzar «dinamikoa» prestatzen. HITZA

Larunbateko batzarrera joateko deia egin dute, Tolosan

Kultur etxean elkartuko dira 09:30ean eta haurtzaindegia egongo dela esan dute aurkezpenean

A. Imaz Tolosa

Sortu prozesuaren lehen batzarrak irauten duen denboran, larunbatean 09:30etik aurrera, Tolosan haurtzaindegi zerbitzua jarriko dute. Euskaraz adierazteko arazoak dituztenentzat, aldiz, lan talde propioa prestatuko dute. Erabaki hauekin, Sorturen dinamizatzaileek, parte hartzea bultzatu nahi dute. Horrela azaldu zuten herenegun, Zerkausian emandako prentsaurrekoan. Bertan, prozesuan parte hartuko duten 40 herritar inguru elkartu ziren, udal ordezkariak tarteko. Guztiek, tolosarrei Sortu prozesuan parte hartzeko eskatu zien, larunbateko batzarrera gonbidatuz.

Eider Olazarrek eta Manex Izagirrek hitz egin zuten Zerkausian, eta azaroaren 24ko batzarraren helburua zein izango den azaldu zuten: «Lehen eztabaida honen helburua, sortu nahi den indar politiko independentista eta sozialista berriaren perfil politiko-ideologikoa zehaztea izango da».

Hurrengo batzarrak

Sortu alderdiaren eratze prozesua otsailaren 23an amaituko da, I. Kongresuarekin. Tartean, lau batzar egingo dira, eta Tolosan, kultur etxera bideratuko dituzte



Manex Izagirre eta Eider Olazar tolosarrak, herenegun, Zerkausian. A. IMAZ

guztiak. Bigarren batzarra abenduaren 15ean egingo dute, ordu eta leku berean. Kasu honetan, ildo politikoari helduko diote. Horrekin batera, barne hauteskunde prozesurako hautagaien zerrenda itxi nahi dute.

Urtarrilaren 26an egingo dute hirugarren bilkura. Antolaketa

eta funtzionamenduaren inguruan ariko dira eztabaidan bertan. Kongresuaren aurreko azken batzarra, otsailaren 9an izango da. Egun horretan, barne hauteskundeak egingo dituzte, hau da, herriko, eskualdeko, herrialdeko zein nazional mailako zerrendak aukeratu dituzte.

MENDI-ALDE

Egunko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Asier Garagarzak erretratatu ditu argi-itzalik ederrenak

Bihar izango da, 2013ko Tolosako Udalaren egutegia jasotzeko azken eguna, Zerkausian

Itzea Urkizu

Asier Garagarzaren *Larunbata* argazkiak irabazi du, 2013ko Tolosako egutegia hornitzeko antolatutako argazki lehiaketa; «argazkia ateratzeko teknika erabili du, eta oso simplea den arren, oso zaila da egin duena», azaldu du Tolosagazako Alberto Gonzalezek. Tolosagazak, Tolargik eta Tolosako Udalak zortzigarrenez antolatu dute egutegirako argazki lehiaketa, eta argi eta itzalen jokoa izan da aurten erretratatu beharreko gaia.

Urteko hilabete bakoitzak, ordea, irudiez gain, bertsoak ere lagun izango ditu Tolosako etxeetako hormetan. Izan ere, Tolosako helduen bertso eskolak, Amaia Agirrerren gidaritzapean, bi bertso idatzitako dizkio hilabete bakoitzari; argia irudikatuz bata, eta ilunari men eginez bestea.

Ibai Iriarte alkateak, egutegi honek denbora gutxian hartu

duen ospea nabarmendu zuen aurkezpenean: «Egutegi benetan maitatua da, eta gainera, herritarrek eurek egiten dute, argazkien bidez».

Bestalde, Iriartek egutegiko jai egunak hizpide izan zituen: «Jai egun ofizial batzuk ez dira markatuta azaltzen, udalak iaz lan-egutegia moldatu egin baitzuen, eta beraz, abenduaren 3a Euskaren Egunagatik markatuta azalduko da, eta martxoaren 8a, berriz, Emakumeen Nazioarteko Egunagatik».

Tolosagazako arduraduna, Alberto Gonzalez, eta Ibai Iriarte bat etorri ziren parte-hartzaile guztiei eskerrak ematerakoan: «Orain arteko parte-hartzerik al tuena izan dugu aurten, 51 argazkilarirekin, eta guztira, 680 argazki jaso ditugu». Halaber, erakusketak ere jakinmin nabarmena pizten du tolosarren artean, eta horren erakusle dira, antolatzaileek jaso dituzten bozkak: 643.

Aipatzekoa da, honen harira, Zigor Sagarnaren *Plaza Euskal Herria* argazkiak jaso duela publikoaren saria, eta urriko orria hartuko duela irudiak. Bozka eman dutenen artean egindako zozketa, berriz, Amaia Muñozek irabazi du, eta haren senarrak



Larunbata izenburua eman dio Asier Garagarzak irabazle suertatu den argazkiari. HITZA / ASIER GARAGARZA

jaso zuen saria ekitaldian.

Tolosako egutegiak ere hurrengo urtean murrizketak jasango dituela azaldu zuen Alberto Gon-

Aurkeztutako 680 argazkiren artean, 13 aukeratu behar izan ditu epaimahaiak

2013ko lehiaketan, Tolosako txoko ezezagunak izango dira protagonista

zalezek: «Saritan 7.000 euro erabili ditugu, eta guztira, 32.000 euroko aurrekontua izan dugu». Horrela beraz, 2013ari begira zenbait gauza moldatu egin beharko dituztela uste dute. Dena den, lehiaketa bederatzigarrenez antolatzeko gogoz dira arduradunak, eta <http://tolosagasa.blogspot.com> atarian argitaratuko dituzte, martxo edo apirila inguruan, datorren urteko lehiaketaren oinarriak.

Tolosako txoko ezezagunak

«Ez da erraza, hainbeste urte eta gero, egutegirako gaia aukeratzeari», azaldu zuen alkateak.

Bueltaka ibili ondoren, ordea, azkenean aukeratu dute, 2013ko



Bozka eman zuten herritarren artean zozketa egiten dute urtero. I URKIZU

↓ Argazki irabazleak

AZALA
Asier Garagarza. *Larunbata*.

PUBLIKOAREN SARIA
Zigor Sagarnaren *Plaza Euskal Herria* (Urria).

BESTEAK
Endika Arandia eta Irati Zugasti. *Izkutuan* (Urtarrila).

Simon Arrigain. *Tolosa Venezia* (Otsaila).

Idoia Zabaleta. *Errotaren isla Oriako uretan* (Martxo).

Asier Garagarza. *Idi proba* (Apirila).

Goretti Izuzkitza. *Leihoa eta aulkia* (Maiatza).

Patxi Jauregi. *Atzoko argia gaurko itzala* (Ekaina).

Joseba Mercader. *Ikustzal* (Uztaila).

Ion Otxoa. *Berdura plaza* (Abuztua).

Jesus Gonzalez. *Herri kirola* (Iraila).

Iker Gereñu. *Igugaña* (Azaroa).

Patxi Jauregi. *Urteberri* (Abendua).

berria hitza

sarrerak

zozketa

Kilometroak 2013 - aurkezpen ekitaldia

2 sarrera pare

*azaroak 23 / Tolosako Leidor aretoa
18:00etako saiorako sarrera pare bat
20:00etako saiorako sarrera pare bat

harpidedunen
TXOKOA hitza

Zozketan parte hartzeko delitu osteguna 14:30ak baino lehen
943 65 56 95 telefono zenbakira.

GAURKO ESKAINTZA

Betiko ipuinak bertsoan, musika eta marrazkiekin

Prezioa

28€

Bertsoak eta marrazkiak

Prezioa

30€

Bertsoak eta marrazkiak

www.mauka.eu

berria

Gasaren azpiegitura berritzen ari dira Bidegoianen

Goiazko hilerriaren ondoan dago edukiontzi berria; herriguneko edukiontziak kendu egingo dituzte

Imanol Garcia Landa Bidegoian

Gasaren herritik zabaltzeko azpiegitura berritzen ari dira Bidegoianen. Biltegi berri bat Goiazko hilerriaren ondoan jarri dute, eta orain, herrigunetan dauden biltegiak hustu ondoren, hauek kendu egingo dituzte. Joxe Erramun Goikoetxea alkateak azaldu duenez, «gure asmoa gasaren biltegiak herrigunetik ateratzea zen, eta proiektu honen bitartez burutu dugu. Orain, beste hirugarren pausoa falta da, hau da, Bidania-koherriguneko gasaren azpiegitura zabaltzea».

Biltegi zaharretako bat Txinkorta eskolaren ondoan, Bidanian, dago. Bestea, Goiazko elizaren parean dago, errepidearen bestaldean. Goikoetxeak azaldu duenez, 2006an hasi zen martxan proiektua. «Txinkorta ikastetxea handitzeko aukera ikusita, ondoren zegoen biltegia lekuz aldatzea aurreikusitua zen. Hortik abiatu zen proiektua». Goiazko hilerriaren ondoan jarritako biltegi berriak herri guztiari banatuko dio gasa, hau da, horretarako azpiegitura duen eraikin guztiak. Biltegi berriaren edukiera aurrerantzean herrian egin daitezkeen etxe be-



Goiazko hilerriaren ondoan jarri duten gas biltegi berria. HITZA



Egun Bidanian dagoen gas biltegi zaharra. IGL

rriek gasa banatzeko adinakoa da. Lehenengo fasea aurreko legealdian egin zen. Orain, bigarren fasea egin da, hau da, biltegi berria egin eta egun dagoen azpiegitura berri lotzea. Udalarantz 71.000 euro inguruko kostua izan du.

Hirugarren fasean, erabilera anitzeko eraikinetik plaza aldera zabalduko da gasaren azpiegitu-

ra. Izan ere, udaletxeak berak eta plazako eraikinek bere biltegiak dituzte. Behin hirugarren fasea egin eta gero, herriko gas biltegitik hartu ahal izango dute. Fase horren kostua 53.000 eurokoa izango dela aurreikusten du udalak. Biltegi berriaren itxuratan pinuek landatu dituzte asteburuan auzolanean.

Tejeria da Eusko Legebiltzarreko lehendakari berria

Billabonatarrak dioenez, «bakearen eta elkarbizitzaren oinarriak» ezartzeko legealdia izango da

I. Garcia Landa Villabona

Urriaren 21eko hauteskundeetan herritarrek hautatu zituzten parlamentariarekin X. legealdiz Eusko Legebiltzara osatu dute. EAJko Bakartxo Tejeria billabonatarra da Eusko Legebiltzarreko lehendakari berria. Atzo ekin zioten Gasteizen legealdi berriari eta legebiltzarreko mahaia osatu zuten. Espero bezala, Tejeria hautatu zuten mahaiko buru, eta bigarren bozketan izan zen, lehenengoan ez baitzuen gehiengo osoirik lortu. Aldeko 27 boto eta 48 boto zuri izan ziren bozketa horretan. Bigarrenengoan, gehiengo simplearekin hautatu zuten Tejeria, eta aldeko 27 boto jaso zituen, 46 zuri eta bi baliogabe.

Legebiltzarreko presidentetara eginiko lehen hitzaldia eske-



Bakartxo Tejeria. I. URKIZU

rrak emanez hasi zuen Tejeriak, eta mahaikideak zoriondu zituen. Gogorazazi zuen ETAREN jardun armaturik gabeko testuinguruan osatu dela lehen aldiz legebiltzara, eta erantsi zuen «bakea eta elkarbizitzaren oinarriak» ezartzeko legealdia izango dela atzo abiatu zutena. Egoera ekonomikotik irteteko legealdia ere izango dela gaineratu zuen.

‘Heziz jolastu’ egitasmoa abian jarri du Bidegoiango Udalak

I. Garcia Landa Bidegoian

Liburutegia gehiago aprobetxatzeko asmoz, eta ikusita etxeetan jostailuak pilatzen direla, Bidegoiango Udalak *Heziz jolastu* egitasmoa martxan jarri du. Ane Lasa Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azaldu duenez, «etxe bakoitzean dagoeneko erabiltzen ez diren jostailuak liburutegira ekartzea eskatzen dugu, gero liburutegian jostailuen txokoa egin dugu eta hortik maileguan hartuko dituzte haurrek jostailuak». Lasak gaineratu duenez, «haurrei erakutsi nahi diegu dena ez dela erostea, trukea ere badagoela, eta horrelako ekimenekin abian jarri daitekeela. Neurrigabeko kontsumoaren aurrean, beste eredu bat bultzatu nahi dugu».

Jostailuekin liburuarekin bezala



Herriko liburutegian jarri dute jolasen txokoa. IGL

egingo da. Erregistro bat osatuko da jostailu bakoitzeko eta haurrek etxera eraman ahal izango dute hamabost egunez. «Gabonak datozela eta, une aproposa irudituzte egitasmoa martxan jartzeko», esan du Lasak, eta gai-

neratu: «Ea familiak jostailuak ekartzera animatzen diren». Udal txokoa edo liburutegira bertara eraman daitezke jostailuak; azken horretako ordutegia, astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara da.

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



hitza info

harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info



Isitxo Larrañaga Akordeoi Orkestrak emanaldia eskaini zuen iragan ostiralean, lurreamendin. HITZA

Xexili Egunaren doinuak lurreamenditik eskualde guztira zabalduko dira

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolakoak gaur aterako dira kalera, bi taldetan banatuta

Asier Imaz

Azaroaren 22an, bihar, Xexili Eguna ospatuko dute musikariek, hau da, euren eguna. Tolosako Isitxo Larrañaga Akordeoi Orkestrako kideak, egun handiaren etorrerari kontzertu batekin erantzun zioten, iragan ostirale-

an, lurreamendiko Kaperan, eta gaur, Eduardo Mokoroa musika eskolako txanda izango da. Akordeoi eta perkusioz osatutako taldea Tolosako Alde Zaharrean ibiliko da, eta ikasleen banda herrian barrena.

Zortzi herri, ospakizun bakarra
Loatzo Musika Eskolako ikasleek iragan astea entseguetan igaroko zuten, izan ere, bihar kalera irten-go dira. Guztira zortzi herri alaituko dituzte musika doinuaz: Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Irura, Ibarra, Villabona eta Zizurkil.

Loatzo Musika Eskolako ikasleak arratsaldean ospatuko dute Xexili Eguna. Alde batetik, hainbat instrumentuk bat eginik, kalejirak egingo dituzte herrietan barrena. Leku esanguratsuenetan, geldialdiak egin eta piezak joko dituzte. Bestalde, musika doinuak bakarrik ez uzteko, dantza saioak ikusteko aukera ere izango da eskualdeko zortzi herri hauetan.

Musika eskolatik herritarrek gonbidatu dituzte Xexili Eguna eurenkin batera ospatzera. Jaialdiaren lau urtetik aurrerako haurrek parte hartuko dute.

↓ Xexili Eguna

GAUR, AAZAROAK 21

■ Tolosa

19:30. Eduardo Mokoroa musika eskolakoak Alde Zaharrean barrena ibiliko dira, Koldo Tarra-gona eta Armaia Lizasoren zuzendaritzapean
20:15. Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleen banda Tolosako kaleetan barrena ibiliko da, Angel Morenoren zuzendaritzapean.

BIHAR, AZAROAK 22

■ Aduna

16:45. Herrian zehar dultzaina eta trikitixarekin kalejira. Trikitixa eta tailerreko kideek ere parte hartuko dute itzulian. Elizako aterpean, Orpo punta, Maketume eta Zapatain dantza joko dituzte.

■ Alegia

18:00. Larraitz auzoan, txaranga eta tailerreko 6 eta 7 urteko haurrak. Kale Beheran trikitixa

eta tailerreko 4, 5 eta 6 urteko haurrak. Arbola eta Itziaroko kalejira. Ondoren, denak plazan elkartuko dira.

■ Altzo

17:00. Eskolatik plazara kalejiran joango dira, trikiti doinuekin, besteak beste. Elizako aterpean denak elkartuko dira. Polka azkarra, Txantxo dantza, Zapatain dantza eta Agurra entzuteko aukera izango da.

■ Anoeta

18:00. Plazatik musika eskolako plazara joango dira txaranga-ekin kalejiran. Puntu horretan, trikitilariak kalejira joko dute, eta berriro plazan, pieza gehiago joko dituzte guztiek. Amaitzeko, 19:30ean, taldetxo bat erretirodunen egoitzara joango da.

■ Ibarra

18:00. Euskal Herria kalean barrena, plazaraino joango dira. Kalejiran dultzaina, saxoa, tronboia, perka... entzuteko aukera izango da. Plazan, Maketume,

Orpo punta eta Zapiain dantza joko dituzte.

19:00. Ibarako Parrokiko Koruak herrian barrena itzulia egingo du, han eta hemen abestiak kantatuz.

■ Irura

18:00. Labaderotik plazara txistulariak, eskusoinuak eta abesbatza joango dira kalejiran. Elizako aterpean eta Zahar Egoitzan geldialdiak egingo dituzte.

■ Villabona

18:00. Udaletik abiatuta, Zentrora eta Berdura plazara joango dira kalejiran, trikitilari eta dultzaineroak. Urripzen edo Berdura plazan soka txiki taldea, Iñaki M. taldea eta heldunen taldea ariko dira.

■ Zizurkil

18:00. Goian eskolatik elizara joango dira kalejiran haize taldeko kideak eta eskusoinuak. Elizan gainontzeko taldeak elkartuko zaizkie, guztien artean hainbat pieza jotzeko.

Asteasu eta Villabona mendi astearen bueltan

Aizkardi eta Sagain mendi elkarteek antolatutako hitzaldi, emanaldi, irteera eta jaialdiak

A. Imaz

Villabonako Aizkardi mendi elkarteak 29. Mendi Astea antolatuta du. Gurean hainbat hitzaldi eta emanaldi ikusteko aukera egongo da ondorengo egunetan. Ar-

gazki Rallyko sariak ostiralean banatuko dituzte, eta lanank ikusteko aukera Gurean dago.

Asteasun Sagain Mendi Taldeak antolatuta du mendiaren inguruko astea. Ekitaldi ugari prestatu dituzte asteasuarrek, gaurtik igandera bitarte. Gazte asanbladaren eta udalaren laguntza izan dute Sagainekoek, ekitaldiak antolatzerakoan edo aurrera eramaterakoan. Karlos Diezen emanaldirekin hasi eta herri festarekin emango diote amaiera Asteasuko Mendi Asteari.

↓ Egitarauak

ASTEASU

■ Gaur, azaroak 21

20:00. Udaletxeko aretoan Karlos Diezen proiektzioa:

Lyngenek Alpeak, Norbegia.

■ Azaroak 23, ostirala

20:00. Udaletxeko aretoan Posin Productionsi esker lortutako emanaldi saritua: *Asgard Project.*

■ Azaroak 24, larunbata

10:00. BTT irteera, 25 km inguruko ibilaldia plazatik abiatuta.

10:00. Txirrindu buelta familiarra, gazte asanbladak antolatuta, plazatik abiatuta. Edozeinentzat egokia.

16:00. BTT-ri buruzko proiektzioa, udaletxeko aretoan.

16:00. Haurrentzako jolasak gazte asanbladaren eskutik, frontoian.

18:00. Disko martxa, koreografiak... frontoian, gazte asanbladaren eskutik.

■ Azaroak 25, igandea

08:30. Lau ordu inguruko mendi irteera erraza oinez, plazatik abiatuta.

09:30. Menditik korrika, hiru ordu inguruko ibilbidean, plaza-tik abiatuta.

10:30. Ibilaldi familiarra, ordu t'erdiko ibilbidean, plazatik ir-tenda.

10:30. Menditik korrika, 7 km inguruko ibilbidean.

Ondoren. Herri festa Asteasuko plaza inguruan. Besteak beste, txerri erre dastatzea, musika eta jolasak egongo dira.

VILLABONA

■ Gaur, azaroak 21

20:00. Gurean, *Chileko Sumendiak* Andoni Ormazabalekin.

■ Azaroak 22, osteguna

20:00. Gurean, Felipe Uriarte-ekin *July Ladhk.*

■ Azaroak 23, ostirala

Aizkardi mendi taldearen urteroko irteera eta V. Argazki Rallyko sari banaketa.

■ Azaroak 25, igandea

08:30. Mendi ibilaldia eta bazkaria, Olaederra kiroldegitik abiatuta.

→ Laburrak

Martxa nordikoari buruzko ikastaroa antolatuta dute

ANOETA › Martxa nordikoari buruzko hiru orduko ikastaroa antolatuta dute Anoetan, abenduaren 1ean. Izena emateko epea azaroaren 28an bukatuko da. Hasiera batean beste data batzuk aurrekusi bazituzten ere, epeak atzeratzea erabaki dute. Izena ematerakoan 10 euro ordaindu behar da, udalategian, liburategian edo kiroldegian. Martxa nordikoa ibiltzeko teknika osasuntsua da.

Jostailuak biltzeko azken eguna gaurkoa izango da

ZIZURKIL › II. Jostailuen Truke-rako Azokarako materiala biltzen jarraitzen dute antolatzaileek. Azoka azaroaren 23an, 17:00etatik 19:00etara, eta azaroaren 24ean 16:00etatik 20:00etara irekiko da. Jostailuak uzteko azken eguna gaurkoa izango da Zizurkil, Atxulondo kultur etxean 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Etxean erabiltzen ez diren jostailuak bildu nahi dituzte, ondoren, haurren artean trukea egiteko. Herritar guztiak animatu dituzte Zizurkilgo II. Jostailuen Truke-rako Azokarekin bat egitera.

→ Laburrak

Banderen auziaz bilera, bihar, Ibarako udaletxean

IBARRA › Banderen auzia dela eta, Ibarako Udalak biharko bilerara deitu ditu herritarrak. Udaletxeko batzar aretoan izango da bilera, 19:30ean, eta Udalak herritarrei zein herriko talde eta eragileei bertaratzeko gonbita luzatzen die.

Babarrunaren lehiaketan izen emateko aukera

IBARRA › Hauspota elkarteak antolatutako Babarrun jatearen barruan, igandean, Babarrunaren III. Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute, Belabieta pilotalekuan. Ibartarrek soilik parte hartu ahaliko dute, bana-ka nahiz binaka. Zubiurre, Txumitxa, Atari eta Sendi Ekin-tzan eman daiteke izena, eta bihar da azken eguna.

Argazki lehiaketan parte hartzeko azken egunak

ARESO › Datorren astelehenean, hilaren 26an bukatuko da Aresoko Udalak antolatu duen argazki lehiaketan parte hartzeko epea. Edonork parte har dezake, eta argazkiak udal-etxera, edo aresokoudala@ibercom.com helbidera bidali beharko dira. Aresoko ondare naturalari, ondare historikoari eta paisaiei egindakoak behar-ko dute izan. Sariak egongo dira, eta baita zozketak ere parte hartzaile guztien artean.

Hiru ikastaro, Lanbide Heziketa Institutuan

TOLOSA › Hiru ikastaro hasiko dira hilaren 26an Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan: Klimatizazio instalazioen konfigurazioa eta kalkulua, Bero-kuntza instalazioetako erregulazio automatikorako elementuak eta Oinarrizko automatismo programagari-riak. Oraindik ere izena eman daiteke, 943 65 11 47ra deituta.

Xabier Mitxelena ◊ Ibarako osasun zentroko medikua

Koloneko minbiziaren prebentzio programa jarri dute martxan Ibaraldean; herritarren zalantzak argitzeko hitzaldiak emango dituzte.

«Koloneko minbizia ohikoena da, eta zainduz gero aurre egin daiteke»

Iñigo Terradillos Ibarra

Osakidetzak koloneko minbiziaren prebentzio-programa jarri du martxan Ibarako osasun zentroak artatzen dituen herrietan (Ibarra, Berastegi, Lizartza, Berrobi, Elduain, Leaburu-Txarama, Gaztelu, Belauntza eta Oresa). Programa horretan parte hartzeak dituen onurak, programaren nondik norakoak eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko helburuarekin, osasun zentroko medikuek eta profesionalak hitzaldi sorta bat antolatu dute. Berastegin, Berrobin, Ibarra eta Lizartzan izango dira, eta Xabier Mitxelena familia medikuak emango ditu.

Zergatik da hain garrantzitsua programa honetan parte hartzea?

Gaixotasuna prebenitzea eta garaiz atzematea du helburu programa honek. Koloneko minbizia daukagun minbizirik arruntena edo ohikoena da. Gizonezkoen kasuan, gehien ematen dena prostatako minbizia da, eta bigarrena, kolonekoa da arruntena. Emakume eta gizonezkoak bateratuz gero koloneko minbizia dela ohikoena esan dezakegu. Beraz, batetik, gaixotasun honen larritasunaz jakitun gara, eta bestetik, prebentzio programa jarraituz gero koloneko minbiziaren heriotza tasa

%14 eta 30 bitartean murriztu daitekeela badakigu. Horregatik du programa honetan parte hartzeak berebiziko garrantzia.

Norizuzendua da?

50 eta 69 urte bitarteko herritarrei.

Minbizia gehien ematen den adina al da hori?

Minbizien %80 ematen da 60 urte-tik gorako personengan. Zenbat eta zaharragoa izan gero eta arrisku handiagoa minbizi mota hau izateko.

Nola atzeman daiteke?

Egunotan, 50 eta 69 urte bitarte dituzten Ibaraldeko herritarrek poltsatxo bat jasoko dute etxean, plastikozko hodi batekin. Bertan, gorozkia edo eginkaria jaso beharko dute, eta gero aztertzeran eraman.

Aztertzean zerbait atzemanaz gero, zer gertatzen da? Larritu egin behar-ko al litzateke gaixoa?

Koloneko minbizia garaiz diagnostikatuz gero bizitzeko aukera %90etik gorakoa da. Horixe da, hain zuzen ere, prebentzio-programa honen helburua: hasiera faseko lesioak eta minbizia goiz detektatzea eta honela gaixotasun honek sortzen duen heriotza-tasa gutxitzea. Modu berean, heste-tako polipoak detektatzerakoan eta kentzerakoan, lesio gaizto bihurtzeko aukera gutxiagotuko dugu.

Batetik gorozkiaren azterketa dago.



IT.

Baina, zer gehiago egin behar da koloneko minbiziaren prebentziorako?

Dieta osasuntsua eta anitza. Izan ere, koloneko minbizia kaloria asko dituzten dietekin lotua dago, hala nola, abere jatorriko koipe saturatu ugariako dietak eta barazki, fruitu eta zuntz gutxi dituztenak. Beraz, fruitu eta barazkiak eta zerealek eta lekaleak egunero jatea gomendatzen da, eta koipeak, haragi gorriak eta gozoak, berriaz, neurritz jatea. Ez erretzea eta alkohola neurritz edatea ere garrantzitsua da, argal egotea, eta ariketa fisikoak egitea. Azken batean, herrialde garatuetakoz bizi-modu sedentarioak eta elikadura ez osasuntsuak dira koloneko minbiziaren eragile nagusiak.

Hortaz, minbizi mota hau areagotuz joan da daramagun bizitzeko eraren ondorioz?

Bai, horrela da. Urte-tik urtera koloneko minbiziaren kopurua handituz joan da azken urteetan.

Zeintzuk dira koloneko minbiziaren sintomak?

Komunera joateko garaian aldaketa bat ematea, hau da, beherakoa edota idorreria izatea, denbora luzez, gainera. Uzkitik odola

↓ Hitzaldiak

■ **Berastegi.** Aparkaleku azpiko lokalean, gaur, 19:00etan.

■ **Lizartza.** Udaletxean, azaroaren 26an, 19:00etan.

■ **Berrobi.** Udaletxean, azaroaren 27an, 18:30ean.

■ **Ibarra.** Kultur etxean, azaroaren 28an (euskaraz) eta abenduaren 4an (gaztelerez), 19:00etan.

botatzea, sabelean kozkor bat nabaritzea edota sabeleko min handia ere sintomak izan daitezke. Dena den, sintoma hauek ez dute esan nahi ezinbestean minbizia dagoenik, baina, sintoma hauek izanez gero, gomendagarria da herriko medikuarengana joatea. **Herritarrek izan ditzaketan zalantzen aurrean hitzaldiak antolatu dituzte.**

Programa honetan ahalik eta herritar gehienek parte hartzea nahi dugu, oso onuragarria baita. Beraz, gure asmoa programa zertan den azaltzea, herritarrek zer egin behar duten esatea, eta euren kezka argitzea da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalauntzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



LIBURU AZOKA ZABALIK, ASTE GUZTIAN ZEHAR

Udazkenarekin batera, eta abenduaren 6tik 9ra izango den Durangoko Disko eta Liburu Azokaren atarian, Tolosako San Frantzisko pasealekuak Liburu Azoka hartzen du urtero. Babarrun Astea hastearrekin batera ireki

zuten eta igandera arte, azaroak 25, egongo da zabalik. Asteazkenetik 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta asteburuan ordu erdiz luzatuko dute ordutegia, 21:30ak arte, alegia. Pos-

tua jarri duten argitaletxeek argitaratutako azken liburak ekarri dituzte Tolosara, baina era berean, liburu zaharragoak eta bitxikeriaren bat ere ikusi ahal da Liburu Azokan. R.CALVO

Agenda

DEIALDIK

- **Asteasu.** Mendi Astearen barruan, gaur, 20:00etan udalategian, Karlos Diezen *Lingeneko Alpeak* (Norbegia) emanaldia.
- **Villabona.** 29. Mendi Astearen barruan, gaur, 20:00etan, Gurea zinema aretoan, Andoni Ormazabalak Chileko sumendien inguruko ikus-entzunezkoa eskainiko du.
- **Tolosa.** Bidaia-irteerak Txokoak

antolatutako ekitaldien barruan, gaur, iraitz Ezkergain mendizaleak *Nola iritsi naiz Ski Bum bat izatera?* hitzaldia eskainiko du 20:00etan, Antxon Bandres Bidaia-irteerak Txokoan, Errotan.

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolaren 2013ko Kilometroak jaiko aurkezpen ekitaldia ostiralean izango da *Kilometroak 2013 hemen da!* izenpean, eta bi emaldi izango dira, 18:00etan

20:00etan. Sarrerak, 2 euroren truke, erosi daitezke jada Orbela eta Ikatz tabernetan eta Laskorain ikastolan.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Luis Albisu tolosarra lanak, erretirodunen tabernan.
- **Larraul.** Koldo Jauregiaren aho-soinuen bilduma, museo etnografikoan, eta Karmele Pelleje-

roren margolanak, herri ostiatuan.

- **Ibarra.** Felix Urrestarazuren margolana, kultur etxean.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak Topic zentroan eta Gualtemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburu jauregian.
- **Villabona.** 5. Argazki Rallyko argazkien erakusketa Gurea zinema aretoan. Ostiralean egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak Ekaitz!

8 urte!

Muxu potoloak Mitxelena familiaren partez!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**